



Euskara ikasteko dirulaguntza deialdia, 2020koa

Baztango Udalak euskararen gizarte ezagutza handitzeko eta erabilera sustatzeko konpromiso irmoa du. Izan ere, euskara Baztango hizkuntza izanik ere hainbat gizarte esparrutan haren erabilera apala da.

Horregatik Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen Ordenantzak bere 39. artikuluan ezarri zuenez, Baztango Udalak euskararen ezagutza handitzea eta haren erabilera ziurtatzea nahiz gizartearen arlo guztietan orokortzea xede duela, jarduerak abiaratuko ditu.

Sustapen jarduera horien artean Baztanen euskara ikasten duten herritarrendako dirulaguntzak daude eta horiek arautzeko honako baldintza eta irizpideak onartu ditu Baztango Udalak 2020ko uztailaren 15ean Tokiko Gobernu Batzordean.

OINARRIAK

1- Xedea

Deialdi honek xede hau du: euskara ikasteko ikastarorik egiten duten baztandarrei horrek dakarkien matrikula gastuetarako dirulaguntza ematea arautzea.

2- Diru-laguntzaren gaiak eta kontzeptuak

2.1- Euskara ikasteko edo euskaraz alfabetatzeko ikastaroak estentsiboak edo trinkoak izan daitezke, bai eta barnetegiak ere. Autoikaskuntzaren kasuan Udalak eskabide bakoitzaren bideragarritasuna aztertu eta aurrekontuaren arabera erabakiko du.

2.2- Eskatzaileak maila bereko ikastaro bat baino gehiago egin arren, bakarrarengatik jasotzen ahalko du dirulaguntza deialdi bakoitzean.

2.3- Garraioa eta materiala ez dira diruz lagunduko. Baztango euskaltegian bere mailako talderik sortuko ez balitz bertze euskaltegi batera joateagatik sortutako gastuak ez dira lagungarri izanen.

3- Onuradunak

Dirulaguntza jaso ahal izanen dute baldintza hauek betetzen dituztenek:

- a. 16 urte baino gehiago izan.
- b. Baztanen erroldaturik egon urtebeteko antzintasunez eta egoera horretan iraun diruz lagunduko den aktibitateak dirauen denbora osoan.

- c. Zergen ordainketa nahiz Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean eduki eta Baztango Udalarekin ordaindu gabeko zorrik ez izan.
- d. 2019-2020 ikasturtean (2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra) euskaltegi batean euskara ikastaroren batean matrikulaturik egon eta haren matrikula ordaindurik izan.
- e. Euskaltegiak ikastaroaren gutxienez % 80ko asistentzia/aprobetxamendu egiaztaturik izan. Autoikaskuntza programa batean ikasten duten ikasleek ere horren aprobetxamendu-egiaztatzea aurkeztu behar dute.

4- Dirulaguntzaren zenbatekoa

4.1- Dirulaguntza hauek 2020 urteko aurrekontuen dirulaguntzen diru-sailaren kargura, euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia izenekora joanen dira. Horretarako 8.000 €ko aurrekontua dago.

4.2- EPC<5.000€ dutenei matrikularen %100a ordainduko zaie, beti ere 420€ gainditu gabe. Gainontzekoen dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzailearen errenta aitordenaren arabera izanen da, aurkezten diren eskabideen arabera egingen da aurrekontuaren zatiketa.

4.3- Aurrekontuetan aurreikusi den diru-kopurua, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean zatituko da, deialdiko baldintzak betetzen dituztenen artean betiere.

4.4- Dena dela, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 420 € baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

5- Deialdiaren publizitatea

Deialdi hau honako hauetan iragarriko da: *Nafarroako Aldizkari Ofizialean*, Baztango Udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean.

6- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko irailaren 1etik urriaren 2ra (14:00ak arte) izanen da. Epea luzaezina izanen da.

7- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- a. Dirulaguntza eskabidea.
- b. NANren fotokopia.

- c. Ikastaroa antolatzen duen erakundearen ziurtagiria, honako ezaugarriak zehazten dituen: ikastaroaren iraupena, maila, matrikularen kostua eta dirulaguntza eskatzen duen ikasleak izan duen asistentzia portzentajea.
- d. Matrikularen ordainagiria(k).
- e. Langabeek Gizarte Asegurantzak emandako lan-bizitza izeneko agiria aurkeztu beharko dute, eguneratua. Ez da langabeziaren txartelaren fotokopia ziurtagiritzat onartuko.
- f. Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitortpenaren fotokopia aurkeztu beharko da, edo, aitortpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrera gordinen Zinpeko Aitortpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriekkin frogatu.
- g. Aitortpena, administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Eskaerak ebatzteke edo ebatzita dauden adierazi beharko da. Azkenengo kasu horretan kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia erantsiko da.
- h. Aitortpen arduratsua: zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.

g eta h puntuetan eskatzen dena aurkezteko eredu bat atxikita doa bukaeran.

Deialdian parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa Baztango Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko da (Baztango Udala. Erregistroa. Foru plaza, zk.g.31700 Elizondo) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren bideetako edozein erabiliz.

8- Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun natural emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

9- Ebazpena

Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Baztango Udaleko alkate-udalburuak edo berak eskuordetzan eman dion organoak hartuko du. Erabaki hori interesdun guztiei jakinaraziko zaie.

10- Dirulaguntzaren ordainketa

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean pagatuko dira, haiek emateko erabakia hartu ondoren; banku transferentzia eginen da eskatzaileek adierazitako kontu korrontearen zenbakian.

11- Bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada, hau da, dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izanen du jardueraren guztizko kostua gainditu.

12- Dirulaguntzen itzulketa

Onuradunek dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli beharko dute ondoan azaltzen diren kasuetako baten bat gertatzen bada:

- a. Dirulaguntza eskuratzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- b. Eskatzen diren agiriak ez aurkeztea horretarako ezarritako epean.
- c. Euskara ikasteko dirulaguntza toki batean baino gehiagotan eskatzearen ondorioz, onuradunak matrikulan gastatutakoa baino gehiago jasotzen badu, Baztango Udalari dirulaguntza itzuli beharko dio, osorik edo parte bat, matrikularen guztizko zenbatekoraino.
- d. Nahitaez onartu behar diren egiaztapenak ez onartzea edo oztopatzea.

13- Arau-hauste eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du.

14- Datuen babesa

Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

15- Aplikatutako araudia

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Toki-Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

16- Errekurtsoak

Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da, aukeran:

- a. Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren udal organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Euskara ikasteko diru-laguntzak Eskabidea

Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak:
NAN:
Helbidea:
Posta kodea eta herria:
Telefonia:
Helbide elektronikoa:
Kontu korrontearen zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu):
2019-2020 ikasturtean euskara ikasteko ikastaroek ekarritako matrikula gastua, guztira: _____ €

(Data eta sinadura)



EUSKARA IKASLEENDAKO DIRU-LAGUNTZAK: ZINPEKO AITORPENA

Eskatzaileak hau aitortzen du:

- Ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.
- Egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren aitzinean dituenak, baita Baztango Udalarekin dituen zerga-betebehar guztiak ere.
- Helburua edozein izanik, diru-laguntza eskatu diela beheko erakunde hauei:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	EGOERA (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratuta)

- Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.
- Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskabiderik eginez gero, Baztango Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)